



PLAZAOLAKO PARTZUERGOAK MUNDUMIRAN PARTE HARTU ZUEN

Milaka pertsona gerturatu ziren Antzuolara multikulturala den festibalera Pasa den maiatzak 29 eta 30 Mundumiraren 6. edizioa ospatu zen Antzuola herrian eta aurreko edizioetan gertatu bezala, honetan ere ikaragarritzko arrakasta lortu zuen. Euskal Herria aldizkariak, Gin Tonic musika produktoreak eta Debagoiena eskualdeko mankomunitateak antolatutako festara 20.000 lagun gerturatu ziren munduko kulturen jai honetan prestatutako jarduerekin disfrutatzen prest. Mundumira iraun bitartean Antzuolan ikaragarritzko giroa bizi izan zen. Turismoari, kulturari, musikari eta kirolari buruzko informazioa eskatzeko probetxatu zuen jendeak herriko kaleak bete zituen. Plazaolako Partzuergo Turistikoa izan zen informazioa eskaintzera bertaratu zirenetako bat eta bere "stand"-era galdezka hurbildu ziren ehundaka lagun atenditu zituen. Ekintza anitz burutu ziren jaialdian, horien artean, kaleko perkusionista eta musikoak, munduko produktuen dastatzea, turismoari buruzko proiektu desberdinen aurkezpenak, ekimen solidarioak, ikus-entzunezkoak, merkatuak, tailerrak edo kontzertuak. Mundumiran, azken finean, urtero-urtero bidaia bat proposatzen zaigu, munduko 5 kontinenteetatik ekarritako musika, gastronomia, artisautza eta antzerkia disfrutatzen eta ezagutzeko bidaia, hian zuzen.

